

Hondakinak kudeatzeko hiru empresari su eman diete¹. Enpresa hauetako bi Hernanin zeuden, eta Astigarragan bestea. Ekintza hauetako batek ere ez du zerikusirik izan talde ekologistekin, ezta antzeko ezerekin ere. Aitzitik, Los Soprano telesaila dakar gogora, hau da, sute horien atzean badirudi "mafia" bat dagoela, mota horretako enpresen kudeaketa bereganatzeko borrokan dabilena.

Sinestezina da. Kosta egiten zait sinestea Hernaniko eta Astigarragako Udalek komunikaturik plazaratu ez izana eraso hau gaitzesteko. Ekintza hori gaitzetsi nahi ez izateko ez dago arrazoi ideologikorik, talde politiko batek aitzakiatzat har dezakeenik. Lanpostuak daude jokoan. Kultura demokratiko bat dago jokoan. Mafioso-taldeei utzi behar al diegu gure hondakinen kudeaketaz jabetzen? Indarkeriaz baliatzen dira lehiakideak beldurtzeko eta segituan esleipen publikoaren monopolioa eskuratzeko, eta isilik geratu behar al dugu, beste albo batera begiratuz? Ezin dut sinetsi hori hemen gertatzen ari denik. Jende ustelak bakarrik onar dezake ustelkeria.

Deigarria ere bada atxilotutakoen delitu-historia luzea. Epaitegiko ate batetik sartu eta beste ate batetik ateratzen dira segituan. Ematen du justiziak ez daukala aparteko interesik gaizkile hauetan. Baina herria mafioso nazkagarri hauen zigorgabetasunaz nazkatuta dago. Noizbait mahaian ukabilkada eman eta "nahikoa da!" esan beharko dugu. Ondo dago hiru, lau aukera ematea. Baita hamar ere. Baina urteak aurrera doaz eta lotsagabe hauek okerretik okerrera doaz. Gaizkile profesional hauek oso garbi daukate justiziari bost axola diotela, eta horrek areago harrotzen ditu. Ez dut uste arazo poliziala denik; arazo judiziala da. Poliziak bere lana egiten du; epaileek ez dute eurena egiten.

Eta erakundeek kasu hauen aurrean gordetzen duten isiltasunak gauzak okerragotzea besterik ez dakar, jokabide horrek atea irekitzen baitie hemengo eta kanpoko abizenak dituzten mafioso siziliar hauei.

¹ Gertaera hauek orain dela hilabete gutxi jazo ziren.